Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra
Hezkuntza Departamentua Departamento de Educación
Sección de Evolución y Gestión de los Sistemas de Información
Informazio Sistemen EbolEboluzioaren eta Kudeaketaren Atala

# Lanpostuen Esleipen Telematikoa (LET)

## Erabiltzailearen gidaliburua - Eskaeren modulua

## Eguneroko deialdia Egunerokoa

## Ikasturte hasierako deialdia Ikasturte hasiera

3.1 bertsioa

# Edukien aurkibidea

1 SARRERA 4
2 BETEKIZUN TEKNOLOGIKOAK 4
3 KONTZEPTUAK 4
3.1 Deialdia 4
3.1.1 Deialdi baten egoera 4
3.2 Deialdi motak 4
3.3 Partaidetza mota 4
3.3.1 Nahitaez parte hartu behar dutenak 4
3.3.2 Borondatez parte har dezaketenak. 5
3.4 Zerrenda 5
4 INTERFAZEA 5
4.1 Goiburua 5
4.2 Ariadnaren haria 5
4.3 Izenburua eta nabigazioa aurreko orrira 6
4.4 Abisuak 6
4.5 Laguntzako informazioa 6
4.6 Edukia 6
4.7 Nabigazioa (atzera) 6
4.8 Orri-oina 6
5 ORRIAK 7
5.1 Abiatuak diren deialdiak 7
5.2 Ebatzitako deialdiak 7
5.3 Nire ATP 8
5.4 Deialdia 8
5.4.1 Informazioa 8
5.4.2 Izangaiak erlaitza 9
5.4.3 Eskaintzak erlaitza 10
5.4.4 Ebazpena erlaitza 11
5.5 Nire eskaerak 12
5.5.1 Egindako eskaera bat kontsultatu 13
5.5.2 Eskaeraren PDFa deskargatu 14
5.5.3 Eskaera baliogabetu 14
5.6 Eskaera 15
5.6.1 Datu pertsonalak 15
5.6.2 Partaidetza mota 15
5.6.3 Eskaeran barne hartutako eskaintzak 15
6 DEIALDI BATEAN PARTE HARTZEA 16
6.1 Autentifikatzea 16
6.1.1 Erabiltzaile ziurtagiria 16
6.1.2 Cl@ve 17
6.1.3 EDUCAko erabiltzailea 17
6.2 Eskaera berria 18

6.2.1 Eskaerari eskaintzak gehitzea 19
6.2.2 Eskaera eskaintzak berrordenatzea 22
6.2.3 Eskaera posizioz mugitu 22
6.2.4 Eskaeratik eskaintza bat kentzea 23
6.2.5 Zirriborroa gorde 24
6.2.6 Eskaera copiatu 24
6.2.7 Eskaera aurkeztea 25
6.2.8 Jakinarazpenak 26

# 1 SARRERA

Erabiltzaile liburu hau eguneroko Egunerokoa eta ikasturte hasierako Ikasturte hasiera deialdiei motei buruz doa.

# 2 BETEKIZUN TEKNOLOGIKOAK

1024x768ko gutxieneko bereizmenerako optimizaturiko aplikazioa

Zein nabigatzailerekin dabilen: Internet Explorer (9 bertsioa edo goragokoa), Mozilla Firefox eta Chrome.

Nahitaezkoa da nabigatzailean ziurtagiri digitala, Estatuko Administrazio Orokorreko Cl@ve egiaztagiria izatea edo EDUCAko erabiltzailea.

# 3 KONTZEPTUAK

## 3.1 Deialdia

Deialdi bakoitzean barne hartzen da eskaintza multzo bat. Horietara jo dezakete aldi baterako kontratazio zerrendetan libre dauden izangaiek. Deialdiak parte-hartze aldi bat definitzen du, zeinean izangaiek beren eskaerak egin ditzaketen. Eskaera bakoitzean izangaiak eskaintzak hautatuko, bere lehentasunen arabera ordenatuko, eta azkenik, eskaera aurkeztuko du. Behin parte hartzeko epea itxita, deialdia ebatzi eginen da eta esleipenak eginen dira.

### 3.1.1 Deialdi baten egoera

- Partaidetza hasi gabe: deialdia argitaratu da baina oraindik ez da hasi izena emateko epea. Egoera honetan izangaiak eta deialdiko eskaintzak kontsulta daitezke, baina ez eskaera bat igorri.
- Partaidetza irekia: deialdia argitaratu da eta hasia da izena emateko epea. Deitutako izangaiek beren eskaerak egin ditzakete.
- Partaidetza itxia – Ebazten: parte-hartze aldia bukatu da. Ezin da jada eskaera berririk egin. Hezkuntza Departamentua deialdia ebazten ari da.
- Ebatzia (behin behinekoa): deialdia ebatzi eta argitaratu da behin behinekoz. Aldaketak izan ditzake esleipenetan eta "ez-libre" egoeretan.
- Ebatzia (behin betikoa): deialdia ebatzi eta argitaratu da. Eskaintzen esleipen telematikoa egin da.

## 3.2 Deialdi motak

3 deialdi mota daude:

- Egunerokoa: oro har, astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan egiten diren ohiko deialdiak.
- Ohiz kanpokoa: 37/2020 Foru Aginduaren 15.3 artikulua. Ezohiko kontrataziorako deialdia (ostegunetako web deialdia).
- Ikasturte hasiera: oro har, udan egiten dira (ekainaren amaieran - abuztuan). Betetzen zaila den lanpostu deialdia mota ere barne hartzen du (37/2020 Foru Agindua, 15.6.c artikulua eta 37/2014 Foru Dekretuaren 13. artikulua).

## 3.3 Partaidetza mota

Bi parte-hartze mota daude, kidegoaren, espezialitatearen eta bertako hizkuntzaren arabera:

### 3.3.1 Nahitaez parte hartu behar dutenak

Parte hartzea nahitaezkoa dute, non ez den borondatezko eskaera duten postuetarako (37/2020 Foru Aginduaren 16.2. artikulua).

### 3.3.2 Borondatez parte har dezaketenak.

Borondatezkoa: izangaia ez da "ez-libre" egoerara pasatuko lanpostu bat hautatu ez duelako.

## 3.4 Zerrenda

Zerrenda esaten zaio kidegoa + espezialitatea + bertako hizkuntza konbinazioari. Eskaintzak zein izangaiak zerrenda jakin batekoak dira.

# 4 INTERFAZEA




## 4.1 Goiburua




Orri guztiek duten atal komuna da. Beti dago bistara, orriaren goialdean.

- http://www.navarra.es/ guneko zerbitzuetan nabigatzea
- Hezkuntza Departamentuaren logoa
- <u>Hizkuntza hautatzea</u>: bistaratuko den hizkuntza aldatzeko aukera ematen du (euskara edo gaztelania). Hautaturiko hizkuntza beltzez azalduko da.
- <u>Laguntza:</u> erlaitz berri bat bistaratzen du, erabiltzaile gidarekin eta ohikoenak diren galderekin.
- <u>Erabiltzaile konektatua</u>: konektaturiko erabiltzailearen izen-deiturak (orria publikoa bada hutsik azalduko da). Klik egitean, erabiltzaileak saioa itxi ahal izanen du eta orri nagusira berbideratuko da.

## 4.2 Ariadnaren haria




Goiburuaren beheko aldean dago.

Abiaburuko orritik ikusten ari zarenera arteko bidea erakusten du, baita orri horietara guztietara esteka ere.

# 4.3 Izenburua eta nabigazioa aurreko orrira




- Nabigazioa aurreko orrira: aplikazioaren nabigazio fluxuan aurreko orrira itzultzen uzten dizu.
- Izenburua: ikusten ari zaren orriaren izenburu deskribatzailea.
- Botoiak: orriko ekintza nagusiak hautatzeko. Eskuinaldean daude, lerroan.

# 4.4 Abisuak




Izangaiendako interesgarria den informazioarekin. Hiru abisu mota daude:

- Akatsa: kolore gorria.
- Abisuak: kolore horia.
- Informazioa: kolore urdina.

# 4.5 Laguntzako informazioa




Laguntza osagarria, orriari buruzko informazioarekin eta erabiltzaileak egin behar dituen ekintzekin. Informazio hau goiko eskuinaldeko gurutzearekin itxi daiteke. Orrian sartzen zaren aldi oro, laguntza berriz ere azalduko da.

# 4.6 Edukia

Orriaren edukia.

# 4.7 Nabigazioa (atzera)




Aplikazioaren nabigazio fluxuan aurreko orrira itzultzen uzten dizu.

# 4.8 Orri-oina




Orri guztiek duten atal komuna da. Beti dago bistara, orriaren behekaldean.

# 5 ORRIAK

## 5.1 Abiatuak diren deialdiak




Aplikazioaren hasierako orria da.

Deialdiak azaltzen dira, ondoko egoeretan:

- Partaidetza hasi gabe
- Partaidetza irekia
- Partaidetza itxia - Ebazten

Parte hartzearen hasierako dataren arabera ordenatuak.

Behin deialdia ebatzi dela, erlaitz honetatik desagertuko da eta beste erlaitz honetara pasatuko da: Deialdi ebatziak.

Deialdi baten gainean klikatuz gero, deialdiko Informazioa erlaitzera joko duzu. Hortik izangaiak eta eskaintzak kontsultatu eta horietan parte hartu ahal izanen duzu.

Goiko eskuineko aldean, hau ageri da 

:

- Deialdi mota. Etiketa sakatuz gero, informazio gehiago ikus dezakezu.
- Deialdiko zerrenda eta eskaintza guztien laburpena. Gainean sakatuz gero, dagokion fitxara sar zaitezke zuzenean.

## 5.2 Ebatzitako deialdiak




Jada ebatzita dauden deialdiak azalduko dira, parte-hartzea hasitako egunaren arabera ordenatua, beherantz.

Bilaketa bat egin dezakezu luparen ikonoak klikatuz . Erabili iragazkiak eta klikatu "Bilatu" botoian. Deialdi zenbakiaren arabera eta parte-hartze dataren arabera bilatu dezakezu.




Ebatzitako deialdiak CSV fitxategi batera esportatzeko klikatu botoian eta horrela deskargatu ahal izanen duzu fitxategia.

Deialdi baten gainean klikatuz gero, deialdiko Informazioa erlaitzera joko duzu. Hortik izangaiak eta eskaintzak kontsultatu eta horietan parte hartu ahal izanen duzu.

# 5.3 Nire ATP

ATPren laguntza ataletik, autentifikazioa behar duen gune pertsonalizatu honen erabiltzailearen eskuliburua deskarga dezakezu.

# 5.4 Deialdia

Deialdiaren gainean klik egin behar da, ondoko erlaitzetan: Abiatuak diren deialdiak edo Deialdi ebatziak.

"*Partaidetza*" botoia (goiko aldean, eskuinean), parte hartzeko aldian baino ez da gaitua egonen.

## 5.4.1 Informazioa

Deialdiko informazio orokorra:

- Deialdi mota: Egunerokoa, Ohiz kanpokoa eta Ikasturte hasierakoa.
- Deialdiaren zk.: deialdiaren zenbakia (zenbakia/urtea).
- Egoera: deialdiaren egoera.
- Partaidetzaren hasierako eguna: zein egunetatik aurrera egin ahal izanen dituzten parte hartzaileek eskaerak deialdian.
- Partaidetzaren amaierako eguna: parte hartzeko epea zein egunetan bukatzen den. Egun horretatik aurrera jada ezin da eskaera gehiago aurkeztu.
- Deskribapena: deialdian barne hartu diren eskaintzetako kidegoen gaineko informazioa.



## 5.4.2 Izangaiak erlaitza

**Izangaiak** erlaitzean deialdiko izangaiak azalduko dira, zerrendatan multzokatuak (kidegoa/espezialitatea/hizkuntza).

Besterik ezean, zerrendak zabalik agertuko dira; zerrendaren goiburuan klik eginez gero, uzkurtu eginen dira. Zerrenda bakoitzetik agertuko dira:

1. Lehenik, nahitaez parte hartu behar duten izangaien (halakorik balego) izen-deiturak, zerrendan duten tokiaren arabera.
2. Bigarrenik, zerrendako gainerako izangaiak (multzoka), borondatez parte har dezaketenak.
3. Azkenik, antzeko zerrendetako izangaiak (multzoka) deituak izan diren ordenaren arabera. Esan bezala, borondatez parte hartzen dute.

Aukera ezazu zerrenda, parte hartu dezaketen izangaiak ikusteko.

Erabili iragazkiak eta “Bilatu” botoian klikatu.




Zerrenda bakoitzaren goiburuan hurrengo informazioa agertzen da:

- Guztira dauden eskaintzak.
- Guztira nahitaez parte hartu behar duten izangaiak.
- Antzeko zerrendak guztira, baldin badaude.
- 37/2020 Foru Aginduaren 15.6.d artikuluko izangaiak, baldin badaude.



Parte hartu ahal izateko "libre" gisa agertu behar da deialdiko zerrendetakoren batean.

Zerrenden egoera kontsultatu esteka honetan:

https://appseducacion.navarra.es/listasdocentes/

### 5.4.3 Eskaintzak erlaitza

Deialdian jasotako eskaintzak azalduko dira.

- Id.: eskaintzako identifikatzaile bakarra. Betetzen zaila den lanpostu bat bada, hurrengo ikonoa agertuko da .
- Zerrenda: eskaintzaren kidegoa/espezialitatea/hizkuntza.
- Herria: ikastetxearen herria.
- Ikastetxea.
- Eskaintza mota: beharra (B) edo ordezkapena (O)
- Profilak: eskaintzan diren eskakizunak.
- Lanaldia (ikastorduen kopurua): ikastorduak.
- Ibilt.: eskaintza ibiltaritzakoa den adierazten du. Eskaintza ibiltaritzakoa bada, oharrak eremuan informazio gehiago aurkituko duzu.
- Treb.: eskaintzak trebetasun bereziak eskatzen dituen adierazten du (37/2020 Foru Aginduko 12.2 artikuluko B atala). Halakorik badu, oharrak eremuan informazio gehiago aurkituko duzu.

Eskaintzaren fitxa osoa bistaratzeko, ikonoan klikatu eta ondoko esparruak azalduko zaizkizu:

- Hasiera data: kontratuaren hasierako data.
- Amaiera data (gehienez): kontratuaren gehienezko data.
- Arrazoia: ordezkapen kasuetan ordezkapenaren arrazoia adieraziko du.
- Oharrak: eskaintzaren gaineko oharrak. Ibiltaritzaren eta trebetasun berezien gaineko informazioa izan dezake.

Eskaintzaren fitxa osoa bistaratzeko ikonoak ertz gorri etena badauka , eskaintzak gehitutako oharrak dituela esan nahi du.




| Id. | Zerrenda | Herria | Ikastetxea | Eskaintza mota | Profilak | Lanaldia (irakastorduen kopurua) | Ibilt. | Treb. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 37850 | 0590/BIOLOGIA ETA GEOLOGIA/G | IRUÑA | BASOKO BHI | O | PI | LANALDI ERDIA (10) | Ez | Ez |
| 39760 | 0590/EKONOMIA/G | ZARRAKAZTELU | VALLE DE ARAGON DBHI | O | | LANALDI ERDITIK GOITI (11) | Ez | Ez |
| 39749 | 0590/FILOSOFIA/G | AZKOIEN | RIBERA DEL ARGA BHI | H | PALE | LANALDI ERDITIK GOITI (15) | Ez | Ez |
| 37666 | 0590/GEOGRAFIA ETA HISTORIA/G | MARCILLA | MARQUES DE VILLENA BHI | H | PI | LANALDI OSOA (20) | Ez | Ez |
| 39766 | 0590/OSTALARITZA ETA TURISMOA/G | BURLATA | BURLADA FP II | O | PI | LANALDI OSOA (20) | Ez | Ez |
| 39738 | 0590/GIZARTEAN ETA KOMUNITATEAN ESKU HARTZEA/E | IRUÑA | ESCUELA DE EDUCADORES - HEZITZAILE ESKOLA II | O | | LANALDI ERDITIK GOITI (14) | Ez | Ez |
| 39763 | 0590/GAZTELANIA ETA LITERATURA/G | TAFALLA | DE TAFALLA IIP | O | | LANALDI ERDIA (10) | Ez | Ez |

Bilaketa bat egin dezakezu luparen ikonoak klikatuz . Erabili iragazkiak eta klikatu "*Bilatu*" botoian. Zerrendaren, herriaren, ikastetxearen eta eskaintza motaren arabera bila dezakezu.




Eskaintzak CSV fitxategi batera esportatzeko, klikatu botoian eta horrela deskargatu ahal izanen duzu fitxategia.

## 5.4.4 Ebazpena erlaitza

Erlaitz hau soilik izanen duzu eskura deialdia ebatzita badago. Esleituriko eskaintzak azalduko dira, baita "ez libre" egoerara pasatuko diren izangaiak eta azkenik esleitu gabe geratu diren eskaintzak.

Goiko partean ebazpenaren emaitzen laburpena agertuko da. Emaitzak esportatu daiteke “Guztiak ikusi” esteka erabiliz.




Zerrenda erabili dezakezu ebazpenaren emaitzan bilatzeko.




Edozein erlaitzetako datuak CSV fitxategi batera esportatzeko klikatu botoian eta horrela deskargatu ahal izanen duzu fitxategia.




## 5.5 Nire eskaerak

Deialdiko "Parte hartu" botoian klikatuz sartuko zara.

Sisteman ziurtagiri elektronikoaren, Estatuko Administrazio Orokorreko Cl@ve egiaztagiriaren edo EDUCAko erabiltzailearen bidez zure burua autentifikatu ondoren, "Nire eskaerak" orrira joko duzu. Bertan deialdian egindako eskaera guztiak (halakorik balego) azalduko zaizkizu.

**Gehienez ere 10 eskaera** aurkez ditzakezu deialdi batean, baina aurkezturiko azken eskaera baino ez da baliozkoa izanen.

"*Eskaera berria*" botoia sakatu, eskaera berri bat sortzeko.




Eskaeraren bat aurkeztua baduzu, "*Eskaera berria*" botoian klikatzean adieraziko zaizu jada badituzula aurkezturiko eskaerak. Klikatu "*Jarraitu*" botoia, beste eskaera bat egin nahi baduzu.




Eskaera baten zirriborroa izatekotan, “Zorriborroa aldatu” botoia agertuko da “Nire eskaerak” horrian. Zirriborroa aldatzen segitzeko, sakatu botoian edo eskaeraren gainean.




## 5.5.1 Egindako eskaera bat kontsultatu

Deialdi baten parte-hartze aldian, deialdi horretan egindako eskaerak kontsulta ditzakezu. Horretarako, eskaeraren gainean klikatu eta eskaera bera hautaturiko eskaintzekin azalduko zaizu.




## 5.5.2 Eskaeraren PDFa deskargatu

Parte-hartze aldian, aurkezturiko azken eskaeraren pdfa eskura egonen da, jaisteko. Nire eskaerak orritik klikatu ikonoa.




Zure eskaera kontsulta dezakezu herritar karpetatik https://administracionelectronica.navarra.es/CarpetaCiudadana/ edo Nafarroako Gobernuko erregistro elektroniko orokorrean http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/1718/registro-general-electronico

## 5.5.3 Eskaera baliogabetu

Deialdiaren parte hartzeko epea irekita badago, deialdi horretan aurkeztutako eskaera baliogatebu daiteke. Oroitu ezen, baliogabetuz gero, ez dela kontuan hartuko deialdia ebazterakoan.

Aurkeztutako eskaerak soilik baliogabetu daitezke. Horretarako, sakatu aurkeztutako eskaeraren gainean eta goiko partean “*Eskaera baliogabetu*” botoia agertuko da.

“*Eskaera baliogabetu*” botoia sakatu eta agertzen den leihoan, berriz “*Eskaera baliogabetu*” botoian sakatu.




# 5.6 Eskaera

Eskaeran sartzeko "*Eskaera berria*" botoian klikatu, Nire eskaerak orrian.

Eskaera aurkezteko orriak horizontalki banaturiko 3 atal desberdin ditu.

## 5.6.1 Datu pertsonalak

- Izen-deiturak: izena, deiturak eta izangaiaren NANa. Ezin dira aldatu.
- Profilak: izangaiak zein profilekin parte hartzen duen. Izangaiak egiaztatuak dituen eskakizunak, deialdia argitaratu den unean. Ezin dira aldatu.
- Helbide elektronikoa: esleipena eta kontratua sinatzeko prest dagoela jakinarazteko helbidea. Besterik ezean, egindako azken eskaeran sartutako helbide elektronikoa edo, halakorik balego, Hezkuntza Departamentuak duen helbide elektronikoa. Hutsa balego, izangaiak helbide elektroniko bat eman beharko du. Nahitaezko eremua da.
- Sakelako telefonoa: esleipena eta kontratua sinatzeko prest dagoela sms bidez jakinarazteko telefonoa. Besterik ezean, egindako azken eskaeran sartutako telefono mugikorra edo, halakorik balego, Hezkuntza Departamentuak duena. Hutsa balego, izangaiak telefono mugikor bat eman beharko du. Nahitaezko eremua da.




## 5.6.2 Partaidetza mota

- Eskaintzaren zerrenda: zure eskabidean hauta d(e/it)zakezun eskaintz(ar)en kidegoa/espezialitatea/hizkuntza.
- Zure deialdiko zerrenda: izangaia zein kidego/espezialitate/hizkuntzatatik deitua den. "Eskaintzaren zerrenda" eta "Zure deialdiko zerrenda" bat izanen dira, salbu eta izangaia antzeko zerrenda batetik deitua den.
- Partaidetza mota: nahitaezkoa edo borondatezkoa.




## 5.6.3 Eskaeran barne hartutako eskaintzak

Jarraian eskaeran barne hartutako eskaintzak adierazten dira, ordenan. Besterik ezean, atal hau hutsa azalduko da eskaintzak izan arte.

Atal honetan izangaiak eskaintzak berrordena ditzake, eskaerak kendu eta eskaintza berriak gehitu.




# 6 DEIALDI BATEAN PARTE HARTZEA

Deialdi batean parte hartu ahal izateko deitua izan behar duzu. Deituak nortzuk izan diren jakiteko, jo Izangaiak erlaitzera.

Parte-hartze aldia irekia badago, deialdiko fitxan (goialdean, eskuinean) "Parte hartu" botoia azalduko da.

Sakatu botoia autentifikatzeko eta eskaera berri bat sortzeko prozesua abiatzeko.




## 6.1 Autentifikatzea

Autentifikatzeko hiru modu daude:




### 6.1.1 Erabiltzaile ziurtagiria

Zure nabigatzailean erabiltzaile ziurtagiria instalatua izan beharko duzu. "Jarraitu" botoian klikatzean, leiho bat azalduko da, eskura dauden ziurtagiriekin.

- NAN elektronikoa
- Ziurtagiri digitala




## 6.1.2 Cl@ve




## 6.1.3 EDUCAko erabiltzailea




EDUCAn sartzeko ohiko erabiltzaile-izena da, eta normalean honela osatzen da: izenaren hasierako letra, eta, ondoren, lehen abizeneko karaktere batzuk eta bigarren abizeneko karaktere bat (adibidez, *pgarciaj*). Pasahitza norberak aukeratzen du, baina gutxieneko segurtasun batzuk bete behar ditu: gutxienez 8 karaktere izan behar ditu, eta horien artean letra xehe bat eta zenbaki bat bederen izan behar ditu.

Educa-ko erabiltzailearekin sartzen zaren lehenbiziko aldia bada, edo ez bazara zure pasahitzaz oroitzen, beste pasahitz bat konfiguratzen ahal duzu honako honi sakatuz: Lehenbiziko aldiz sartuko naiz / Ez dut pasahitza gogoratzen

Ez bazaude deitua, abisu mezu bat azalduko zaizu.




Deitutakoen artean bazaude, [Nire eskaerak](#) orrira jo eta goiburuko eskuinaldean izangaiaren izena eta deiturak azalduko dira.

## 6.2 Eskaera berria

Behin sisteman ziurtagiri digitalaren, Estatuko Administrazio Orokorreko Cl@ve egiaztagiriaren edo EDUCAko erabiltzailearen bidez zure burua autentifikatu ondoren, [Nire eskaerak](#) orrian sartuko zara. Deialdian egindako eskaera guztiak azalduko dira (halakorik balego).

Gehienez ere 10 eskaera aurkez ditzakezu deialdi batean, baina aurkezturiko azken deialdia baino ez da baliozkoa izanen.

"*Eskaera berria*" botoia sakatu, eskaera berri bat sortzeko.




Eskaeraren bat aurkeztua baduzu, "*Eskaera berria*" botoian klikatzean adieraziko zaizu jada badituzula aurkezturiko eskaerak. Klikatu "*Jarraitu*" botoia, beste eskaera bat egin nahi baduzu.



## 6.2.1 Eskaerari eskaintzak gehitzea

"Hautatu eskaintzak" botoian klikatu, zure eskaerari eskaintzak gehitzeko. Leiho bat azalduko zaizu, izangaiak eskura dituen eskaintzekin. Eskaintzak orrietan zatituta agertuko dira. Orri bakoitzean gehienez 10 eskaintza agertuko dira. Hurrengo botoiak erabili orri batetik bestera mugitzeko:






| Id. | Zerrenda | Herria | Ikastetxea | Eskaintza mota | Profilak | Lanaldia (irakastorduen kopurua) | Ibilt. | Treb. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 35677 | 0597/HAUR HEZKUNTZA/G | IRUÑA | BUZTINTXURI HLHIP | O | | LANALDI OSOA (25) | Ez | Ez |
| 35786 | 0597/HAUR HEZKUNTZA/G | AZKOIEN | JUAN BAUTISTA IRURZUN HLHIP | O | | LANALDI OSOA (25) | Ez | Ez |
| 35824 | 0597/HAUR HEZKUNTZA/G | VILLAFRANCA | EL CASTELLAR HLHIP | O | | LANALDI OSOA (25) | Ez | Ez |
| 35833 | 0597/HAUR HEZKUNTZA/G | MARCILLA | SAN BARTOLOME HLHIP | O | | LANALDI OSOA (25) | Ez | Ez |
| 36498 | 0597/HAUR HEZKUNTZA/G | IRUÑA | DOÑA MAYOR DE NAVARRA HLHIP | O | PI | LANALDI OSOA (25) | Ez | Ez |
| 37122 | 0597/HAUR HEZKUNTZA/G | IRUÑA | CARDENAL ILUNDAIN HLHIP | O | | LANALDI OSOA (25) | Ez | Ez |
| 37766 | 0597/HAUR HEZKUNTZA/G | SARTAGUDA | NUESTRA SEÑORA DEL ROSARIO HLHIP | O | | LANALDI OSOA (25) | Ez | Ez |
| 37789 | 0597/HAUR HEZKUNTZA/G | NOAIN | SAN MIGUEL HLHIP | O | | LANALDI OSOA (25) | Ez | Ez |
| 37926 | 0597/HAUR HEZKUNTZA/G | OTEIZA | SAN SALVADOR HLHIP | O | | LANALDI OSOA (25) | Ez | Ez |
| 37945 | 0597/HAUR HEZKUNTZA/G | AGOITZ | SAN MIGUEL HLHIP | O | | LANALDI OSOA (25) | Ez | Ez |

Klikatu luparen ikonoan  eta eskura dauden eskaintzen bilaketa iragazi bat egiteko eremuak azalduko zaizkizu. Zerrendaren, herriaren, ikastetxearen, eskaintza motaren eta lanaldi motaren arabera bila dezakezu.

Behin bilaketa irizpideak ezarrita, "*Bilatu*" botoian klikatu. Soilik azalduko zaizkizu ezarritako irizpideekin bat egiten duten eskaintzak.

Iragaziak garbitu nahi badituzu, klikatu "*Garbitu*" botoian eta bilaketa irizpideak desagertuko dira. Klikatu berriz "*Bilatu*" botoian berriz ere eskaintza guztiak bistaratzeko.




Eskaintza bat zehazki gehitzeko, ezkerreko lehen zutabean dagoen + ikonoan klikatu behar duzu. Izan gogoan eskaintzak gehitutako ordenan sartuko direla eskaintzan (geroago berrordenatzeko aukera izanen duzu).

Atzeko aldean abisu bat azalduko zaizu, adierazteko, eskaintza behar bezala gehitu dela. Mezu hau segundo batzuen buruan desagertuko da.




Eskaintza guztiak masiboki gehitzeko, "*Denak gehitu*" botoia baliatu behar duzu. Botoi horrek zure eskaeran sartuko ditu une horretan bistara dituzun eskaintza guztiak. Bilaketa irizpiderik ez baduzu aplikatu, eskura dauden eskaintza guztiak gehituko zaizkizu.

Eskaintza guztiak zure eskabidean gehitu aurretik, baiestea eskatuko zaizu. Klikatu "*Denak gehitu*" botoian, baiesteko.



Goiko aldean abisu bat azalduko zaizu, emaitzaren gaineko informazioarekin. Urdinez azalduko zaizu zure eskabidean behar bezala gehitu den eskaintza kopuruaren gaineko informazioa.

Horiz azalduko zaizu, izangaiak eskaintzak dituen eskakizunak betetzen ez dituelako, eskaeran gehitu ezin izan diren eskaintzen gaineko informazioa.




Eskaintza betetzen zaila den lanpostu bat bada ([37/2020 Foru Aginduaren 15.6.c artikulua](#) eta [37/2014 Foru Dekretuaren 13. artikulua](#)),  ikonoa azalduko da eskaintzaren identifikatzailearen ondoan. Betetzen zaila den lanpostua bat eskaerari gehitzerakoan goiko partean abisu bat agertuko da.




Itxi leihoa goialdean eskuinean dagoen gurutzean klikatuz edo leihotik kanpo, alde gris ilunean klikatuz.

Hautaturiko eskaintzak azalduko zaizkizu, aurreko leihotik gehituz joan zaren ordena berean.

Eskaintzak orrietan zatituta agertuko dira. Orri bakoitzean gehienez 10 eskaintza agertuko dira.

Hurrengo botoiak erabili orri batetik bestera mugitzeko:  .




## 6.2.2 Eskaera eskaintzak berrordenatzea

Izan gogoan eskaintzak zure eskaeran "Gehitu eskaintzak nire eskaerari" izeneko leihoan gehitzerakoan erabili duzun ordenan azalduko direla.

Ordena jakin batean gehitzen badituzu, ondoren ez dituzu eskaintzak berrordenatu beharko.

Eskaeran jada sartuta dauden eskaintzen ordena aldatzeko, lehenik eta behin eskaintza bat hautatu behar duzu (lerroaren gainean klik eginez – ikusiko duzu nola hautaturiko eskaintza kolore horira pasako den). Ondoren, klikatu gezien botoietan, gora edo behera mugitzeko.




## 6.2.3 Eskaera posizioz mugitu

Izan gogoan eskaintzak zure eskaeran "Gehitu eskaintzak nire eskaerari" izeneko leihoan gehitzerakoan erabili duzun ordenan azalduko direla.

Ordena jakin batean gehitzen badituzu, ondoren ez dituzu eskaintzak berrordenatu beharko.

Eskaeran jada sartuta dagoen eskaintza bat posizio zehatz baterra mugitzeko, lehenik eta behin eskaintza bat hautatu behar duzu (lerroaren gainean klik eginez – ikusiko duzu nola

hautaturiko eskaintza kolore horira pasako den ). Ondoren, klikatu ✥ botoian.




## 6.2.4 Eskaeratik eskaintza bat kentzea

Eskaeratik eskaintza bat kentzeko, lehenik eta behin hautatu egin behar da eta ondoren zakarrontziaren ikonoan klikatu. Ekintza gauzatzeko baiestea eskatuko zaizu.




Abisu mezu bat azalduko zaizu eta eskaintza zure eskaeratik desagertuko da. Beranduago

berriz sartu nahi izanez gero, hala egin dezakezu "Hautatu eskaintzak" botoian klikatuz.

34502 eskaintza kendu da zure eskaeratik.

## 6.2.5 Zirriborroa gorde

Eskaeraren zirriborroa gordetzeko, "*Zirriborroa gorde*" botoian sakatu. Deialdiaren parte hartzeko epea irekita dagoen bitartean, zirriborro egoeran dagoen eskaera aldatzeko aukera izango duzu.




Oroitu zirriborro egoeran dagoen eskaera ez dela deialdiaren ebazpenean kontuan hartuko.

## 6.2.6 Eskaera copiatu

Aurkeztutako edo deuseztatutako eskaera bat kopiatzeko, sakatu eskaera hori nire eskaeren pantailatik, eta goiko aldean "Zirriborroa sortu" botoia agertuko da. Ekintza gauzatzeko berrespena eskatuko zaizu.






Eskaera kopiatzean, aurkeztutako eskaeraren bat badago, abisu bat agertuko da:

> “Baduzu eskaera bat aurkeztua. Zure eskaera berria aurkeztu arte ez da erregistraturik geldituko.”

Eskaera kopiatzean, zirriborroren bat badago, abisu bat agertuko da:

“Baduzu eskaera baten zirriborroa eta, jarraitzen baduzu, horren gainean idatziko duzu.”

Zirriborro berria gorde nahi baduzu, jarraitu aurreko atalean azaldutako urratsei.

### 6.2.7 Eskaera aurkeztea

Eskaera bat aurkezteko nahitaezkoa da:

1. Helbide elektroniko bat sartzea.
2. Telefono mugikor bat sartzea.
3. Eskaeran gutxienez ere eskaintza bat sartzea (ezin dira aurkeztu eskaera hutsak).
4. Parte hartzeko epearen barruan egotea.

"Aurkeztu eskaera" botoi berdearen gainean klikatu eta testu bat azalduko zaizu, eskaeraren laburpenarekin. Informazio gisa, helbide elektronikoa, telefono mugikorra eta eskaeran sartutako eskaintza guztiak gogoan izanen dira.

Klikatu "Aurkeztu eskaera" botoian eskaera aurkezteko.




Eskaera behar bezala erregistratu bada, ondoko orria azalduko da.




## 6.2.8 Jakinarazpenak

Ebazpenari buruzko informazioa eskura izanen da Ebazpena erlaitzean.

Hezkuntza Departamentuak, informatzeko asmoz, mezu elektroniko bat eta sms bat igorriko ditu, hurrenez hurren, eskaera sartu duen izangaiaren helbide elektronikora eta telefono mugikorreko zenbakira.

Aurreko paragrafoko helbide elektronikoa eta sms-a igorriko dira soilik ondoko bi kasuetan:

1. **Esleipenak**

   Izangaia deialdiaren ebazpenean eskaintza baten esleipendun izan bada.

2. **"Ez libre" egoerara pasatzea.**

   Izangaia "Ez libre" izatera pasatzen bada zerrenda guztietan, 37/2020 Foru Aginduaren 16. artikuluaren arabera.